

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Datuen babesa, pribatutasuna eta zibersegurtasuna”, Garapen Ekonomikoko ostiraletako gaia

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Europako Araudia eta informazioaren tratamendurako segurtasun-neurriak azalduko dira

Astelehena, 2018.eko azaroak 5

Garapen Ekonomikoko ostiral honetako (azaroak 9) jardunaldiak Datuen babesa, pribatutasuna eta zibersegurtasuna” izango du gai nagusizat. Jardunaldian, 2016tik indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Europako Araudia eta enpresan datu pertsonalak tratatzeko segurtasun-neurriak jorratuko dira.

Datuak Babesteari buruzko Europako Araudiak aldaketa garrantzitsua dakar datu pertsonalak eta haiek tratatzeko baimena nola lantzen dituzten baloratu behar duten enpresentzat. Garapen Ekonomikoko Sailak Enterprise Europe Networken laguntzarekin antolatu duen bileran, pribatutasunean adituek informazioaren segurtasuna hobetzeko jarraibideak eta gomendioak emango dituzte.

Izaskun Goñik Politika ekonomikoaren eta enpresarialaren zuzendari nagusiak emango dio hasiera [jardunaldiari](#). Gero, Sergio Pérez García Enterprise Europe Network-Nafarroako Unibertsitateko kideak Datuen Babeserako Europako araudi berria jorratuko du; Lourdes Orozek Pribatua- Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkartearen kideak hitzaldi bat emango du “Zer da DBO eta nork behar du?” izenburupean; Jon Azkaratek Pribatuko lehendakariak Nafarroako enpresa txiki eta ertainen datuen babesari buruzko araudi berriari buruz hitz egingo du; David Muñozek Teknologiaren Zuzenbide Batzordeko abokatuak eta kideak (MICAP) aro digital berrirako prestakuntza jaso duten profesionalen buruz hitz egingo du; eta Guillermo Vitasek Nafarroako Informatikako Ingeniaritza Teknikoaren Lanbide Elkargoko dekanok informazio-segurtasuna hobetzeko gomendio praktikoak emango ditu.

Hitzordua 12:00etan da, Iruñeko Kondestablearen jauregian . Sarrera doakoa da eta aurretiaz [izena eman](#) behar da lotura honetan.